Santiago Sainzek aditzera eman du egokia deritzola EH Bilduk, indarrean dagoen kaleetako errotulazioari buruzko araudia errespetatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak jasotzea helburu duen mozioa aurkeztea. Hala ere, beste herrietako EH Bildu alderdiko udal-taldeei errotulazioa bi hizkuntza ofizialetan egiteari buruzko araudia bete dadin lan egiteko eskatu die.

Santiago Sainz manifiesta que le parece apropiado que EH Bildu presente una moción que busque que se recojan los idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, respetando así la normativa vigente para la rotulación de las calles, pero les pide también que indiquen a los grupos municipales de EH Bildu de otras localidades que también trabajen por cumplir la normativa de las rotulaciones en los dos idiomas oficiales.

Mozioa bozkatu da, eta honako emaitza

Sometida la moción a votación obtiene

hau lortu da: aldeko 8 boto (GUK, EH Bildu, Ciudadanos) eta 16 abstentzio (EAJ, PP, PSE-EE).

Gehiengoak onartutako mozioak:

2014ko ekainean Getxoko udalbatzak EH Bilduk aurkezturiko mozioa onartu zuen udalerrian erdara hutsean zeuden kale-plakak euskaratzeko. Mozio horretan trafiko eta kale izendapenei dagozkien zenbait plaka aipatzen genituen. Horien artean Bidebarri, Las Mercedes, Ondategi, Juan de Berroeta, Aldapa, Elorri, Urrimendi, Jaime Morera eta Villaondotea kaleak izendatzen dituzten plakak, Gobelena kaleko trafiko-seinale bat eta Areetako hondartzako komunekoa.

Gogora ekarri nahi dugu berriz ere Udalbatza honetara 34 urte pasa direla jada Euskal Autonomi Erkidegoan elebitasun legea onartu zenetik eta 37 urte igaro direla Autonomia Estatutuak betebehar hau ezarri zuenetik. Zehazki, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeak, 1982an jada honakoa jasotzen zuen: "kale-bideetako seinale eta iragarpenak bi hizkuntzetan egongo dira".

Aurrekoaz gain, azpimarratu beharra dago Euskararen Erabilera Sustatzeko Ekintza Planak (ESEP 2013-2016) bere 4.9.2.3. puntuan "herriko izendegia (toponimoak, kale-izenak, parke publikoetakoak ... ) euskaraz jartzea eta oker daudenak zuzentzea" administrazioaren egitekoen artean jasotzen dituela.

2014ko ekaineko mozioa onartu zenetik bi urte pasa dira jada eta aipatutako

el siguiente resultado: 8 votos a favor, GUK, EH Bildu, Ciudadanos; 16 abstenciones, PNV, PP, PSE-EE.

Por mayoría es aprobada la siguiente moción:

En junio de 2014, el Pleno del Ayuntamiento de Getxo aprobó la moción presentada por EH Bildu con el fin de colocar en euskera las placas de las calles que están únicamente en castellano en el municipio. En aquella moción mencionamos varias señales de tráfico y placas de calles. Entre ellas estaban las placas de las calles Bidebarri, Las Mercedes, Ondategi, Juan de Berroeta, Aldapa, Elorri, Urrimendi, Jaime Morera y Villaondoeta, una señal de tráfico de la calle Gobelena, y la placa del aseo de la playa de Las Arenas.

Queremos volver a recordar en este Pleno que han pasado ya 34 años desde que en la Comunidad Autónoma Vasca se aprobara la ley del bilingüismo, y 37 desde que el Estatuto de Autonomía estableciera esta obligación. Concretamente, la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera recogía lo siguiente en el año 1982: “las señales y los anuncios de las calles y vías estarán en ambas lenguas”.

Además de lo anterior, debemos destacar que el Plan de Fomento del Uso del Euskera (ESEP 2013-2016) recoge, en su punto 4.9.2.3, entre las tareas de la administración, “adaptar al euskera el callejero del municipio (topónimos, nombres de calles, de parque públicos, etc.) y corregir los nombres que contengan errores”.

Han pasado dos años desde que en junio de 2014 se aprobó la moción, pero

kale-plakek eta seinalek erdara hutsean jarraitzen dute. Aldi berean herriko hainbat seinaletan euskara ez da ondo bermatzen; adib.: Ikastola San Nikolas jarri beharrean San Nikolas ikastola jarri behar zen. Hori dela eta, Getxoko Osoko Bilkura hurrengo akordio proposamena onartu egiten du:

1.- 2014ko ekainean Getxoko udalbatzak onartutako mozioa behingoz betetzea eta, aldi berean, Udal Gobernuari eskatzea premiazko moduan gaztelera hutsean jasotako plaka guztiak identifikatu, kendu, zuzendu eta berriak ezarri ditzala.

2.- Herriko plaka eta seinale guztiak aztertu eta euskaraz gaizki daudenak zuzendu eta aldatu.

**176.- EH BILDU UDAL-TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: LAN-POLTSETAKO JENDEAREN KONTRATAZIOA LEHENTASUNEZ**

Ibon Rodriguezek mozioa irakurri du.

Susana Andollok hitza hartu du GUK, enplegu publikoaren alde egiten duenez, udal-lanpostuak iraungi eta amortizatzeearen aurka dagoela adierazteko; hori dela eta, mozioa babestuko du.

Eduardo Andradek adierazi du talde popularrak ez duela mozioaren alde egingo. EH Bilduk mozioa proposatu izana kritikatu du; izan ere, udalaren azpikontratazioriк handiena babestu du, hiri-hondakin solidoen bilketako

las placas de las calles y las señales continúan estando únicamente en castellano. Además, las señales que están en euskera contienen errores en varios puntos del municipio. Por ejemplo: Ikastola San Nikolas en vez de San Nikolas ikastola. Es por eso que el Pleno del Ayuntamiento aprueba la siguiente propuesta de acuerdo:

1.- Cumplir de una vez la moción aprobada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo en junio de 2014 y, del mismo modo, solicitar al Gobierno Municipal que con carácter de urgencia identifique, retire, corrija y sustituya todas las placas que estén únicamente en castellano.

2.- Analizar todas las placas y señales del municipio y corregir y cambiar las que contengan errores en euskera.

**176.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/PRIORIDAD EN LA CONTRATACIÓN DE LAS PERSONAS DE LAS BOLSAS DE TRABAJO.**

Ibon Rodríguez da lectura a la moción.

Susana Andollo interviene para indicar que GUK está en contra de la extinción y amortización de puestos de trabajos municipales ya que apuestan por el empleo público, por lo que poyarán la moción.

Eduardo Andrade indica que el grupo popular no va a apoyar la moción. Critica que EH Bildu plantee la moción cuando ha apoyado la mayor subcontratación del ayuntamiento que es la que existe en el servicio de

zerbitzuan dagoena, hain zuzen ere. Ez dute desberdintasunik ikusten azpikontratazio horren eta beste zerbitzu batzuetan egiten direnen artean, hala nola, hiri-hondakin solidoen bilketako zerbitzuan, barrualdeak garbitzeko zerbitzuan, etab. Jakinarazi du espero duela EH Bilduk, gobernu-taldearekin aurrekontuak berriro negoziatzen dituenean, jarrera hori lehentasunezkotzat hartuz proposatzea.

recogidas de RSU. No ven diferencia entre esta subcontratación y las que se realizan en el servicio de RSU, limpieza de interiores, etc. Espera que cuando EH Bildu vuelva a negociar los presupuestos con el equipo de gobierno plantee esta posición como prioritaria.

Inazio Uriartek adierazi du gobernu-taldea mozioaren edukiaren alde egon daitekeela lan-poltsetan etengabe erabiltzen delako eta enplegu publikoa sortzen duelako, Udalbatza honetan beste lanpostu bat sortu den bezala. Hala eta guztiz ere, aztertzen ari garen kasu zehatzean, lana egun bat edo biko epealdiari zegokion eta hori formalizatzeko egin beharreko kudeaketek zenbateko nabarmena eragiten zuten, iraupen gehiagoko kontratazioak egitea eragozten zuena, hain zuzen. Urtean zehar egindako behin-behineko kontratazioei buruzko datuak emanez amaitu du; kontratu horiek guztiek mozioan aipatutakoek baino epealdi luzeagoak dituzte.

Inazio Uriarte indica que el equipo de gobierno puede estar a favor del contenido de la moción porque de hecho se utiliza de manera constante en las bolsas de tratajo y se crea empleo público, como en este mismo Pleno se ha creado un nuevo puesto de trabajo, pero que en este caso concreto el trabajo se correspondía a un periodo de uno o dos días y las gestiones a realizar para formalizar el mismo suponía una carga importante que dificultaba la posibilidad de realizar otro tipo de contrataciones de más larga duración. Finaliza dando datos de contrataciones temporales a lo largo del año que todos ellos son de periodos más largos que los contratos referidos en la moción.

Ibon Rodríguezek PPri adierazi dio Andradek hitza hartzen duen bakoitzean harritu egiten dituela; izan ere, PP kudeaketa zuzenaren zein enplegu publikoaren alde gehien egiten duen udal-taldea dela ematen du. Hori hala balitz, ildo horretatik jarraituz EH Bilduren babesa izango luke, baina gogorarazi du PP Estatu-mailan enplegu publiko gehien suntsitu duena izan dela, baita pribatizazioen alde gehien egin duena ere. Kontziente dira apurka-apurka aldatzen saiatzen diren benetako egoeraz eta, zentzu horretan, aurrekontu-akordioan aurrerapausoak

Ibon Rodríguez indica al PP que cada vez que interviene Andrade les deja sorprendidos ya que parece que el PP es el grupo municipal que más apuesta por la gestión directa y por el empleo público. Si eso fuera cierto en esa línea contaría con el apoyo de EH Bildu pero recuerda que el PP ha sido el mayor destructor de empleo público en todo el Estado y el mayor favorecedor de las privatizaciones. Son conscientes de la situación real que intentan modificar paulatinamente y en el acuerdo presupuestario también se han dado pasos en este sentido. EH Bildu desde

eman dira ere bai. EH Bilduk betidanik egin du enplegu publikoaren alde, kalitate handiagokoa eta bidezkoagoa baita. Azpikontrataziora jotzeari buruzko justifikazioei dagokienez, asko eta bestelakoak entzun dira, baina gobernu-taldeak orain proposatu duena onartezina da; izan ere, edozein langaberentzat, eta inolako babesik ez daukaten horietako askorentzat, bi eguneko soldata garrantzitsua da.

siempre ha apostado por el empleo público ya que es de mayor calidad y más justo. Respecto a las justificaciones de recurrir a la subcontratación se han oído muchas y diferentes pero lo que ha planteado ahora el equipo de gobierno no es asumible, ya que para cualquier parado y para muchos de ellos, que además no tienen ninguna protección, el sueldo de dos días es importante.

Inazio Uriartek argitu du berak ez duela EH Bilduk, antza denez, ulertu duena esan, baizik eta administrazio-lanean luzeagoak diren kontratazioei lehentasuna ematen zaiela, eta behin-behineko kontratuetan egon den gehikuntzari buruzko datuak eman ditu. Langileen administrazio-zerbitzuen lanari lehentasuna ematean datza.

Inazio Uriarte indica que él no ha manifestado lo que al parecer ha entendido EH Bildu, sino que en la labor administrativa se prioriza la gestión de contrataciones más largas y se han dado datos del incremento en contratos temporales. Se trata de priorizar el trabajo de los servicios administrativos de Personal.

Eduardo Andradek jakinarazi du PPk ez duela zuzeeko kudeaketa defendatzen, baina ez duela gezurrik esaten eta azpikontratazioaren aurka dagoela adierazten duen mozio bat aurkeztu ondoren ez duela dagoen azpikontrataziorik handiena (hondakinen bilketa-zerbitzua) onesten. Gauzak ez dira ondorio administratiborik ez daukaten mozioak aurkeztuz aldatzen, baizik eta presioa egiten; adibidez, era orokorrean azpikontratatzen duen gobernu-talde baten aurrekontuak ez babestearen gisako jarduketen bidez.

Eduardo Andrade manifiesta que el PP no defiende la gestión directa pero no miente presentando una moción donde se manifiesta que están en contra de la subcontratación y aprobar la mayor subcontratación como es la que existe en el servicio de recogidas de residuos. Las cosas se cambian presionando y no por mociones que no tienen efectos administrativos, sino con actuaciones como no apoyar los presupuestos a un equipo de gobierno que subcontrata de manera generalizada.

Ibon Rodríguezek ihardetsi du EH Bilduk ez duela gezurrik esaten baina badakiela nork manipulatzen dituen datuak eta nor den gezurrak esaten dabilena berak hala jakinda, Andrade jaunak egin ohi duenez. Hiri-hondakin solidoen bilketaren kontratua ez da EH Bilduri gustatzen zitzaiona, baina gaur

Ibon Rodríguez replica que EH Bildu no miente pero sí saben quién manipula los datos y miente sabiendo que lo está haciendo como lo hace de manera habitual el sr. Andrade. El contrato de recogida de los RSU no es el que le gustaba a EH Bildu pero el actual mejora al anterior y lo mismo

egungoak aurrekoa hobetzen du, eta gauza bera adierazi du aurrekontuei dagokienez.

manifiesta respecto a los presupuestos.

Inazio Uriartek gogorarazi du administrazio publikoetan langileak kontratatzen uzten ez duen araudia funtsean Estatuko aurrekontu-legeetan jasotakoa dela, eta bere ustez euskal ekonomietan bezalako onbideratutako ekonomietan zentzurik ez daukaten mugapenak planteatzen dituela.

Inazio Uriarte recuerda que la normativa que impide la contratación de personal en las administraciones públicas es fundamentalmente la recogida en las leyes presupuestarias del Estado, planteando limitaciones que opina que no tienen sentido en economías saneadas como las vascas.

Eduardo Andradek erantzun du Estatuari egiten zaion kritikak ez daukala zentzurik; izan ere, udal-taldeak ez du kudeaketa zuzeneko zerbitzurik egingo gaur egun azpikontratatuturik dauden zerbitzuetan. Ibon Rodríguezi errepikatu dio udalean dagoen azpikontratazioirik handienari babesa eman diotela, diotenaren arabera, azpikontratazioak enplegu-kolokatasuna eragiten duela jakinda.

Eduardo Andrade replica que no tiene sentido la crítica que se le plantea al Estado ya que el equipo de gobierno no va a realizar servicios de gestión directa en servicios que actualmente están subcontratados. A Ibon Rodríguez le sigue insistiendo en que han apoyado la mayor subcontratación que existe en el ayuntamiento, conscientes, como dicen ellos, de que la subcontratación genera precariedad laboral.

Mozioa bozkatu da, eta honako emaitza hau lortu da: aldeko 7 boto (GUK, EH Bildu), kontrako 5 boto (PP) eta 12 abstentzio (EAJ, PSE-EE, Ciudadanos).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 7 votos a favor, GUK, EH Bildu; 5 votos en contra, PP; 12 abstenciones, PNV, PSE-EE, Ciudadanos.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría es aprobada la siguiente moción:

Hauteskunde egunetarako instalakuntzak (kabinak eta bestelako aperoak) jartzeko Udalak bere garaian izandako lan eskaintza publikotik eratorritako lan poltsatik zortzi langile kontratatu zituen joan den 2015eko abenduaren 20ko hauteskundeetarako.

El Ayuntamiento, con el fin de colocar las instalaciones del día de elecciones del pasado 20 de diciembre de 2015 (cabinas y demás aperos), contrató a ocho personas de la bolsa de trabajo creada a partir de la oferta pública de empleo convocada en su día.

Ekainaren 26ko hauteskundeetarako berriz, jakin izan dugu lan horren muntaia egiteko Udalak enpresa pribatu baten zerbitzuak kontratatu zituela. Antza denez, horren arrazoia

Sin embargo, para las elecciones del día 26 de junio, según hemos sabido, el Ayuntamiento ha contratado los servicios de una empresa privada con el fin de realizar estos trabajos de montaje.

langileen kontratazioaren konplexutasunean datza.

Al parecer, la razón para ello estriba en la complejidad de la contratación del personal.

Jakina da EH Bilduko kideak zerbitzuen kudeaketa zuzenaren aldekoak garela, langileen azpikontratazioak prekarietaterako bideak erraztu egiten dituelako eta horren adibideak baditugu, turismo bulegoko mugikorreko langileak esaterako. Kasu honetan gainera, Udalak kontratazio zuzena burutzeko bitarteko guztiak bazituen, Udal lan poltsa bat badagoelako. Beraz, etorkizunean Toki Administrazioari dagokion edozein zereginetan zeharkako gestioa baztertzeko eskakizuna luzatu nahi dugu.

Es sabido que los miembros de EH Bildu estamos a favor de la gestión directa de los servicios, porque la subcontratación del personal favorece el camino hacia la precariedad. Tenemos varios ejemplos de esto, como el personal de la oficina de turismo móvil. Además, en este caso, el Ayuntamiento disponía de todos los medios necesarios para realizar una contratación directa, puesto que existe una bolsa de trabajo municipal. Por lo tanto, queremos solicitar que en un futuro se renuncie a la gestión indirecta para realizar cualquier trabajo de la administración local.

Aurreko guztiagatik EH Bildu udal-taldeak Udalbatzari honako akordio proposamena egiten dio bere onarpenerako:

Por todo lo expuesto, el grupo municipal de EH Bildu presenta la siguiente propuesta de acuerdo para su aprobación:

1.- Getxoko Udalak indarrean dituen lan poltsetako langileak lehentasunez kontratatuko ditu beti. Lan poltsetan jendea dagoen bitartean ez da enpresa pribaturik kontratatuko administrazioaren zereginak betetzeko.

1.- El Ayuntamiento de Getxo prioritará siempre la contratación de las personas que estén en las bolsas de trabajo municipales en vigor. Mientras haya gente en dichas bolsas de trabajo, no se contratará ninguna empresa privada para llevar a cabo los trabajos de la administración.

2-. Udalak kontratazio zuzena errazteko prozedurak aztertuko ditu kontratazioaren konplexutasunaren arrazoia aitzakiatzat hartu ez dadin.

2-. El Ayuntamiento analizará procedimientos para facilitar la contratación directa, de modo que el tema de la complejidad de la contratación no sea utilizado como excusa.

**177.- EH BILDU UDAL-TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: LAIKOTASUNAREN ALDE**

**177.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/A FAVOR DE LA LAICIDAD.**

Ibon Rodriguezek ondorengo mozioa irakurri du:

Botere publikoaren eta Elizaren arteko harremanak agerikoak izan dira gure historian zehar. XX. mendetik geroztik, hainbat gertakarik instituzio publiko eta Elizaren arteko harremanen berri ematen digute.

Frankismoaren amaierarekin, laikotasunaren inguruko eztabaida mahai gainean jarri zen. Laikotasunak sineste aniztasunaren errespetua helburu zuen. Eliza eta Estatuaren arteko banaketa eginez, besteei arau moralak ezartzeari uko egiten zitzaion.

Horregatik, laikotasuna demokraziaren oinarrizko printzipio gisa ulertu behar da; sineste erlijiosoak ez direlako inori ezarri beharrekoak, ez dira inoiz lege bihurtu behar. Hala, erlijioen antolamendu sekularra behar da, betiere bermatuz, pertsona guztien berdintasuna; sinestunak izan edo ez.

XXI. mendeko hamarkada bat baino gehiago igarota, uste dugu urrats batzuk eman behar ditugula. Hala, uste dugu badirela jarduketa batzuk botere publikoen aldetik, non ez den berdintasun printzipioa errespetatzen ezta administrazioaren laikotasuna ere.

Administrazioak bere esku dauden baliabideak martxan jarri behar ditu pertsona ororen berdintasuna bermatzeko, haien erlijioa edozein izanda ere, sinestunak edo ateoak izan da ere. Ildo horretatik datoz udaletxeetan egiten diren ezkontza zibilak eta azken urteetan gero eta ohikoagoak diren hileta zibilak.

Ibon Rodríguez da lectura a la siguiente moción:

Las relaciones entre el poder público y la Iglesia han sido notorias a lo largo de nuestra historia. A partir del siglo XX, hemos podido comprobar las relaciones entre las instituciones públicas y la Iglesia en muchos acontecimientos.

Con el fin del franquismo, se puso sobre la mesa el debate sobre la laicidad, el cual tenía como objetivo el respeto hacia la diversidad de creencias. Llevando a cabo la separación entre Iglesia y estado, se acababa con la imposición de normas morales.

Por ese motivo, la laicidad ha de ser entendida como un principio básico de la democracia; puesto que las creencias religiosas no se pueden imponer a nadie, no se deben convertir en leyes. Se precisa de una organización secular de las religiones, siempre que se garantice la igualdad entre todas las personas, creyentes o no.

Pasados más de diez años del siglo XXI, creemos que hemos de dar algunos pasos. Así, opinamos que se dan ciertas actuaciones por parte del poder público en las que no se respeta ni el principio de igualdad ni la laicidad de la administración.

La administración debe poner en marcha los medios a su alcance para garantizar la igualdad de todas las personas, sea cual sea su religión y sean creyentes o ateos. En ese contexto aparecen las bodas civiles que se celebran en los ayuntamientos, y los entierros civiles, cada vez más comunes en los últimos años.

Demokraziaren kontzeptutik eratortzen diren jarrera eta printzipio horiek gure herriko ospakizunetara eta ekimen kulturaletara zabaldu behar dira. Izan ere, horiek sarritan izaera historiko eta tradizionala mantentzen baitute.

Esas actitudes y principios que provienen del concepto de la democracia deben extenderse a las celebraciones e iniciativas culturales de nuestro pueblo, las cuales mantienen a menudo una naturaleza histórica y tradicional.

Aurreko guztiagatik uste dugu administrazioaren berdintasun eta laikotasun printzipioek jaietako ospakizun eta ekimen kulturalak indartu behar dituztela. Herritar ororen integrazioa eta parte-hartzea helburu, aniztasuna eta norberaren sinesmenen errespetua bermatu behar dute botere publikoek.

Por todo lo mencionado, creemos que los principios de igualdad y laicidad de la administración deben reforzar las celebraciones e iniciativas culturales de las fiestas. Teniendo como objeto la integración y la participación de toda la ciudadanía, los poderes públicos deben garantizar la diversidad y el respeto hacia las creencias de cada uno/a.

Aurreko guztiagatik udalbatzari honako akordio proposamena luzatzen diogu:

Por todo lo anteriormente explicado, remitimos la siguiente propuesta de acuerdo ante el Pleno:

1. Getxoko Udalak administrazioaren laikotasuna bermatzeko betebeharra bere egiten du arlo eta eremu guztietan. Horretarako beharrezko neurriak martxan jarriko dira pertsona ororen berdintasun printzipioa errespetatze aldera, horiek sinestunak izan edo ez.

1. Que el Ayuntamiento de Getxo asuma la obligación de garantizar la laicidad de la administración, en todos los ámbitos y terrenos. Para ello, se tomarán las medidas necesarias para garantizar el principio de igualdad de todas las personas, sean o no creyentes.

2. Arestian aipatutako printzipioak betearazteko Getxoko Udalak, instituzio gisa izaera zibileko ekintzetan baino ez du parte hartuko.

2. Que, para el cumplimiento de lo mencionado anteriormente, el Ayuntamiento de Getxo solo tomará parte como institución en los actos de carácter civil.

3. Getxoko Udalak zinegotzi bakoitzak era pertsonalean, ekimen erlijiosoetan parte hartzeko duen eskubidea errespetatuko du.

3. El Ayuntamiento de Getxo respetará el derecho de los/las concejales de participar en actos religiosos a título personal.

4. Getxoko Udalak udal komunikabideen bitartez akordio honen berri emango du eta herriko agintaritza katolikoari jakinaraziko dio adostutakoa.

4. El Ayuntamiento de Getxo, mediante los medios de comunicación municipales, notificará el presente acuerdo y le hará saber lo acordado a la autoridad católica local.

Susana Andollok transakzio-zuzenketa bat aurkeztu du, eta irakurri egin du:

*"Mozioaren arrazoien aurkezpenak erlijioei egiten die erreferentzia uneoro, haien artean desberdintasunik egin barik. Horrenbestez, 4. idatz-zatian agintari katolikoari egindako aipamena aldatzea eta agintari erlijiosoak aipatzea beharrezkotzat jotzen da; horrela, azalpena nahiz aurkeztutako mozioaren zentzua errespetatuko lirateke.*
*Aurkeztutako zioak direla eta, mozioa aldatuko da eta, EH Bilduk eskatuta, erabaki-proposamena aldatu egingo da; hori dela eta, 4. idatz-zatiak honako hau jasoko du:*

*4. Getxoko Udalak udal komunikabideen bitartez akordio honen berri emango du eta herriko agintaritza erlijiosoei jakinaraziko die adostutakoa".*

Ibon Rodríguezek transakzio-zuzenketa onartu du.

Susana Andollok, GUKen izenean, aditzera eman du alkatea eta udalkideak ezin direla ekitaldi erlijiosoetara joanez edo erlijio bakar bat aintzat hartuz herritar guztiak errespetatzearen alde jarri; horrenbestez, mozioaren alde egingo dute.

José Luis Landak aitortu du alderdi sozialistak Egoitza Santuarekin egindako itunak aldatzeko aukera izan zuela eta ez zuela egin; hori dela eta, gaur egungo egoeraren erantzukizunaren zati bat onartzen du. Udalerriari dagokionez, jakinarazi du erlijio nagusienek transzendentzia-kontzeptu bat planteatzen dutela eta, bere ustetan, gizartearen zati gehienak ez duela transzendentzia zein goi-izaki

Susana Andollo presenta un enmienda transaccional a la que da lectura:

*"La exposición de motivos de la moción presentada habla, en todo momento, de religiones, no diferenciando entre las mismas. Por ello, se considera preciso modificar la mención que se hace a la autoridad católica en el punto 4º por una mención a las autoridades religiosas, respetando así la exposición y sentido de la moción presentada.*
*Es, por los motivos expuestos, por lo que se enmienda la moción en el sentido de modificar la prupuesta de acuerdo solicitada por EH Bildu en su punto 4º que pasará a decir:*

*4º.- El Ayuntamiento de Getxo, mediante los medios de comunicación municipales, notificará el presente acuerdo y le hará saber lo acordado a las autoridades religiosas locales".*

Ibon Rodríguez admite la enmienda transaccional.

Susana Andollo, en nombre de GUK, manifiesta que el Alcalde y los corporativos no pueden posicionarse por respeto a todos los vecindarios en relación a una religión o asistencia a actos religiosos, por lo que apoyarán la moción.

José Luis Landa reconoce que el Partido Socialista tuvo ocasión de modificar los pactos con la Santa Sede y no lo hicieron, por lo que asume una parte de corresponsabilidad en la situación actual. Respecto al ámbito local indica que las religiones mayoritarias plantean un concepto de trascendencia y cree que la mayor parte de la sociedad vive una situación en la que ni cree ni niega la existencia de una trascendencia y de

baten existentzia ukatzen ezta sinesten ere. Azkenik, aditzera eman du udalak ez duela inolako ekitaldi erlijiosora joan behar eta, horrenbestez, mozioa babestuko dutela.

un ser superior. Finaliza estimando que el ayuntamiento no debe de acudir a ningún acto religioso, por lo que apoyarán la moción.

Koldo Iturbek, EAJren izenean, adierazi du mozioaren iritzi berekoak direla baina, ekitaldi erlijiosoetara joateari buruz, tradizioz eta ohituraz egin den zerbait dela deritzo eta ez diola inori kalterik egiten; are gehiago, jakinarazi du ekitaldi erlijiosoetara joan dela (katolikoak nahiz musulmanak) gonbidatu izan dutelako. Azaldu du ukaezina dela jaien jatorria erlijioari loturik dagoela eta bere taldeak uste duela jende guztia errespetatu behar dela; beraz, ez lukeela kritikatuko beste alkate edo gobernu-talde batek gonbidatu zaien ekitaldi erlijiosoetara ez joatea erabakiko balute. Amaitu du esanez gai horrek ez duela inolako kezkarik edo eztabaida berezirik sortzen gizartean.

Koldo Iturbe, en nombre del PNV, indica que pueden compartir el sentido de la moción pero en relación a la asistencia a actos religiosos cree que la misma es algo tradicional y de constumbre, que no daña a nadie e indica que de hecho ha acudido invitado a actos religiosos, de la religión católica y también musulmana. Manifiesta que no se puede negar que las fiestas tienen orígenes ligados a la religión y que la opinión de su grupo es el respeto a todo el mundo, por lo que no criticaría si otro alcalde u otro equipo de gobierno decidiera no acudir a los actos religiosos a los que se les invita. Finaliza indicando que esta cuestión no genera ninguna preocupación ni especial debate en la sociedad.

Ibon Rodríguezek erantzun du tradizioz eta ohituraz zezenak, aharien borrokak, etab. justifikatu direla, eta hori oinarri hartuta ezin dela guztia justifikatu. Beraren iritziz, erlijioak eremu pribatuan egon behar du; horrenbestez, kargu publikodun batek ezin dezake ospakizun erlijiosoetara joan. Estatua ez-konfesionala da eta, hala izanik, ezin daiteke ospakizun erlijiosoetara joan.

Ibon Rodríguez replica que por tradición y costumbre se han justificado los toros, las peleas de carneros, etc., y todo no se puede justificar en base a ello. Cree que la religión ha de situarse en el ámbito privado por lo que no se puede acudir como cargo público a celebraciones religisosas. El estado es aconfesional y como tal no puede acudir a celebraciones religiosas.

Miguel Ibabek esan du talde popularrak aurkako botoa emango duela mozio hau datozen hauteskundeetarako GUK Getxorekin desberdintasun batzuk nabarmentzeko era bat dela uste baitu. Mozioaren bidez pertsonen fedearekiko errespetua izatea nahi dute, hainbat urtez jarduketa

Miguel Ibabe manifiesta que el grupo popular va a votar en contra ya que creen que la moción busca marcar un territorio cara a las próximas elecciones, marcando unas diferencias con GUK Getxo. Buscan respeto a las creencias de las personas con la moción cuando durante años han jaleado actuaciones

terroristak txalokatu badituzte ere. Jakinarazi du administrazioa ez dela berdintasuna bermatzen duena, baizik eta Estatua. Beraren aburuz ospakizun erlijiosoak ohituraz egiten dira, eta udalari dagokio horietara joatea ala ez erabakitzea. Ez du uste Estatuaren ez-konfesionaltasunaren aurka doanik edo laikotasuna apurtuko denik. Adierazi du Getxoko Udalak ez diola inoiz inori deialdirik igorri ospakizun erlijiosoetara joateko.

terroristas. Indica que no es la administración la que garantiza la igualdad sino el Estado. Cree que las celebraciones religiosas vienen por tradición y se limita al ayuntamiento que es libre para acudir o no. No cree que rompa la laicidad ni va contra la aconfesionalidad del Estado. Indica que el Ayuntamiento de Getxo no ha enviado nunca ninguna convocatoria a nadie a acudir a ninguna celebración religiosa.

Ibon Rodríguezek esan du eliza katolikoak beti babestu egin dituela hilketa jendetsuak eta PP hilketa horiek argitzearen aurka dagoela. Ez daude hauteskunde klabean, eta beraien irizpidea Ahal dugu alderdia jaio baino askoz lehenagokoa da. Azpimarratu du mozioak proposatzen duela erakunde gisa ez joatea inolako ekitaldi erlijiosora.

Ibon Rodríguez indica que los asesinatos masivos han sido protegidos por la Iglesia católica y en contra de su esclarecimiento se posiciona el PP. No están en clave electoral y su criterio es muy anterior a la existencia de Podemos. Insiste en que la moción plantea que no se acuda como institución a ningún acto religioso.

Mozioa bozkatu da, eta ezetsi egin da aldeko 9 botorekin (GUK, EH Bildu, PSE-EE), aurkako 14 botorekin (EAJ, PP) eta abstentzio 1ekin (Ciudadanos).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 9 votos a favor, GUK, EH Bildu, PSE-EE; 14 votos en contra, PNV, PP; 1 abstención, Ciudadanos.

Iñaki Gamero udalbatza-aretotik irten da.

Iñaki Gamero abandona el salón de Plenos.

**178.- EH BILDU UDAL-TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: EUSKAL PRESO ETA IHESLARI POLITIKOEN SENIDEEKIKO ELKARTASUNA**

**178.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/SOLIDARIDAD HACIA LOS/LAS FAMILIARES DE LAS PERSONAS PRESAS Y REFUGIADAS POLÍTICAS VASCAS.**

Oier Iturraldek ondorengo mozioa irakurri du:

Oier Iturralde da lectura a la siguiente moción:

Euskal preso eta iheslari politikoen sakabanaketa eta urruntze politikak ez du etenik ezagutu azken urteotan, eta ez du era berean urtaroen aldaketari

La política de dispersión y alejamiento de las personas presas y refugiadas políticas vascas no ha tenido fin, y, al mismo tiempo, no se ha producido

loturiko moldaketarik egin. Horrela, udako denboraldia eta oporraldiak aintzat harturik, azken hamarkadetan helburu hori bete dad in hamaika ekimen izan dira uda askotan zehar, aipagarrienak gure herriko eta inguruetako hondartzetan egin izan diren mobilizazioak direlarik.

ninguna modificación ligada a los cambios de estación. De este modo, teniendo en cuenta la temporada de verano y de vacaciones, en las últimas décadas se han organizado durante muchos veranos infinidad de iniciativas para lograr ese objetivo. Entre ellas, las más destacadas son las movilizaciones que se han realizado en las playas de nuestro municipio y alrededores.

Aurtengo uda ez da, zoritxarrez, salbuespen izango: ehunka euskal herritarrek espetxeetan edota atzerrian sakabanaturik diraute, haien gutxieneko eskubide zibil eta politikoak ukatuz. Haien artean, 8 getxoztar daude: Endika Lejarzegi, Javi Gallaga, Aitor Kotano, lñigo Gutierrez, Arkaitz Goikoetxea, Manex Zubiaga, Asier Borrero, Alvaro Arri Pascual.

Desgraciadamente, este verano no va a ser una excepción, ya que cientos de ciudadanos/as vascos/as siguen sufriendo la dispersión en las cárceles o en el extranjero, siéndoles negados los mínimos derechos civiles y políticos. Entre dichas personas se encuentran 8 getxotarras: Endika Lejarzegi, Javi Gallaga, Aitor Kotano, Iñigo Gutiérrez, Arkaitz Goikoetxea, Manex Zubiaga, Asier Borrero y Álvaro Arri Pascual.

Hori dela eta, Getxoko Udaleko udalbatzari honako akordio proposamena luzatzen diogu, berau onartu eta bere egin dezan:

Por ese motivo, remitimos la siguiente propuesta de acuerdo ante el Pleno del Ayuntamiento de Getxo, para que la apruebe y la asuma:

- Urtero, udako denboraldiarekin bat eginez, euskal preso eta iheslari politikoen senideek sakabanaketa politika gaitzetsi eta haien jatorritik hurbileneko diren espetxeetara hurbil ditzaten aldarrikatzeko mobilizazioak deitzen dituzte; Getxon kokatuta dagoen Uribe Kosta eskualdeari dagokionez, deialdia uztailaren 31n izango da, Plentziako Metrotik 12:00etan; hala, Getxoko Udalak deialdi harekin bat egiten du, eta getxoztarrak bertan parte hartzera deitzen ditu.

- Todos los años, coincidiendo con la temporada de verano, los/las familiares de las personas presas y refugiadas políticas vascas convocan movilizaciones para denunciar la política de dispersión y reivindicar el acercamiento a las cárceles más próximas a su domicilio. En cuanto a la comarca de Uribe Kosta, a la cual pertenece Getxo, se convoca una movilización para el 31 de julio a las 12:00 desde el metro de Plentzia. El Ayuntamiento de Getxo se suma a dicha convocatoria y llama a la participación de los/las vecinos/as de Getxo.

- Udal komunikabideen bidez, Getxoko Udalak erabaki honen berri

- Mediante los medios de comunicación municipales, el

eman eta getxoztarrei mobilizazioan parte hartzera gonbidatzen ditu.

Ayuntamiento de Getxo notifica este acuerdo y anima a los/las getxotarras a que participen en la movilización.

Oier Iturraldek jakinarazi du badakiela une honetan ez dela erraza izango proposatutakoaren inguruan akordio batera heltzea, baina iragarri du gai hori hilero proposatzen jarraituko dutela bilkuretan. Halaber, adierazi du besoak zabalik dituztela akordioa egiteko baina ukabila itxirik daukatela ere presoen eskubide zibil eta politikoen errespetuaren borrokan.

Oier Iturralde manifiesta que es consciente que en este momento no va a ser fácil llegar a un acuerdo sobre lo planteado pero anuncia que van a seguir planteando esta cuestión todos los meses en los plenos y que están con los brazos abiertos al acuerdo pero también con el puño cerrado en la lucha por el respeto a los derechos civiles y políticos de los presos.

Susana de Cosek, PPren izenean, adierazi du betiko mozioak itzuli direla, baina hondartzen denboraldiko urtaro-aldaketarekin. PPk irizpide berarekin jarraitu du: Espainian herritar guztien eskubide zibil eta politikoak errespetatzen direla, baita hilketak egiteagatik kondena betetzen dituztenenak ere.

Susana de Cos, en nombre del PP, manifiesta que vuelven las mismas mociones de siempre sólo con el cambio de estación de temporada de playa. El PP sigue con el mismo criterio que es que en España se respetan los derechos civiles y políticos de todos los ciudadanos incluidos los de los que cumplen condena por haber cometido asesinatos.

Santiago Sainzek jakinarazi du, oraingo honetan mozioa presoen familiekiko elkartasuna erakusteko dela, baina haien jendea (beste pertsona batzuk hiltzeagatik kartzelan dauden terroristak) kontentatzea baino ez dutela nahi. ETA ez litzateke inoiz existitu izan beharko eta bere jarduketa kondenatu beharra dago. EH Bilduk ez du guztion giza eskubideen alde borrokatzen; izan ere, Bizkaiko Batzar Nagusietan joan den astean ETAk mehatxatutako pertsonei itzultzeko aukera ematea iharduki zen. Zuek zeuek abstentzio egin zenuten, batek badaki!

Santiago Sainz manifiesta que en esta osación la moción es de solidaridad con las familias de los presos pero que sólo buscan contentar a su gente que son los terroristas encarcelados por matar a otras personas. ETA nunca debió de existir y debe condenarse su actuación. EH Bildu no lucha por los derechos humanos de todos ya que: "en Juntas Generales de Bizkaia la semana pasada: se debatió "incentivar el retorno" de las personas amenazadas por ETA. Vosotros incomprensiblemente os abstuvisteis".

Enrique Pradak azaldu du GUK taldeak argi utzi duela sakabanaketa-politikaren zein eskubide-urraketaren aurka daukan jarrera, baina

Enrique Prada indica que GUK ha dejado claro su postura contra la política de dispersión y de vulneración de derechos pero insisten en que debe

azpimarratu du mozioa ez den aurrera egiteko beste eraren bat egon behar dela eta, horrenbestez, aurrekoetan bezala, abstenitu egingo dela.

de haber otra forma de avanzar que no sea a golpe de moción y, por tanto, como en ocasiones anteriores se abstendrán.

Oier Iturraldek uste du PP eta Ciudadanos alderdiekin eztabaidatzea alferrikakoa dela beren irizpide politikoa jakinda. GUK taldeari adierazi dio beti entzuten dutela erantzun bera eta galdetu dio, bere ustez, zeintzuk diren presoen eskubideak erreklamatzeko zein sakabanaketari amaiera emateko bideak. Gobernu-taldeari akordioetan aurrera egiteko babesa eskaini dio ere, baita beren laguntza adierazitako borrokan ere.

Oier Iturralde cree que discutir con PP y Ciudadanos es baldío conociendo su criterio político. A GUK le indica que siempre oyen la misma respuesta y le pregunta cuáles cree que son las vías de reclamar los derechos de los presos y de finalizar con la dispersión. Al equipo de gobierno también le ofrece su apoyo para avanzar en acuerdos y también su compañía en la lucha.

Enrique Pradak adierazi du GUK taldeak sakabanaketaren nahiz eskubideen urraketaren aurka daukan jarrerari eusten diola eta, beste bide batzuk irekitzen direnean, mozioak zuzenean aurkeztu beharrean, aldez aurretik adostasunak lortze aldera harremanetan jartzeko eskatzen du.

Enrique Prada indica que GUK se reafirma en su posición contra la dispersión y violación de derechos y cuando se abran otros caminos éstos exigen contactos previos en busca de consensos y no la presentación directa de mociones.

Oier Iturraldek adierazitako gaiari buruz hitz egiteko GUKek egindako gonbidapena onartu du.

Oier Iturralde acepta la invitación de GUK para hablar sobre este tema.

Enrique Pradak erantzun du herrialde honen normalizazioa GUK eta EH Bilduren akordioaz haratago doala, eta beste eremu batzuetan nahiz beste talde batzuekin akordioak egin beharra dagoela.

Enrique Prada responde que la normalización en este país pasa por un acuerdo mucho más amplio que el de GUK y EH Bildu, lo cual exige acuerdos en otros ámbitos y con otros grupos.

Mozioa bozkatu da, eta ez da onartu: aldeko 3 boto jaso ditu, (EH Bildu), aurkako 16 boto (EAJ, PP, PSE-EE, Ciudadanos) eta 4 abstentzio (GUK).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 3 votos a favor, EH Bildu; 16 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 4 abstenciones, GUK.

Koldo Iturbek, botoa azaltzeko, esan du EAJ alderdiak aurkako botoa eman duela aurreko bilkuretan behin eta

Koldo Iturbe, en explicación de voto, indica que el PNV vota en contra en base a lo indicado de manera reiterada

berriz adierazitakoa oinarri hartuta: beraien ustez politika zuzena Eusko Jaurlaritzak gauzatzen duena dela.

en plenos anteriores y en que estiman que la política correcta es la que viene desarrollando el Gobierno Vasco.

Iñaki Gamero udalbatza-aretora itzuli da.

Vuelve al salón de Plenos Iñaki Gamero.

**179.- CIUDADANOS UDAL-TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: UDALERRIKO JAIETAKO ESPARRU POLITIZATU GABEAK**

**179.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL CIUDADANOS S/DESPOLITIZACIÓN DE LOS RECINTOS FESTIVOS DEL MUNICIPIO.**

Santiago Sainzek ondorengo mozioa irakurri du:

Santiago Sainz da lectura a la siguiente moción:

Uda iristearekin batera, baina ez soilik sasoi honetan, ezta gutxiagorik ere, herrietako jaiak asko gehitzen dira Espainiako geografia osoan zehar. Guztiok dakigunez, Getxo, bere osotasunean, ez da salbuespena horri dagokionez. Udalerriko zenbait jaik, hala nola Portu Zaharreko jaiek, Bizkaiko beste leku batzuetatik jaiez gozatzera datorren jende andana erakartzen dute, herria erakargarri turistiko bilakatzen delarik.

Con la llegada del periodo estival, si bien no es ni mucho menos durante el único periodo del año, las fiestas patronales de los pueblos a lo largo y ancho de la geografía española se multiplican. Como todas y todos sabemos Getxo en su conjunto no es ninguna excepción en lo que a estas festividades se refiere, siendo algunas de ellas, tales como las fiestas del Puerto Viejo un auténtico reclamo para gran cantidad de gente que se desplaza desde otros puntos de la geografía vizcaína para poder disfrutar de ellas convirtiendo al municipio en un reclamo turístico.

Herri bateko jaien jatorria askotarikoa izan daiteke: erlijiosoa, data jakin bat ospatzea... hori bai, errealitateak erakutsi digu jaiek zerikusi gutxi dutela berez duten zentzuarekin, eta jai-esparruetan mezu politikoen presentzia etengabea da. Mezu horiek ez dute zerikusirik auzoan edo jaia egiten den herrian egon beharko lukeen jai-giroarekin.

El origen de las fiestas de un pueblo puede tener diversas causas: religiosas, conmemoración de una fecha…ahora bien, a pesar de su origen la realidad nos ha demostrado que el desarrollo de las mismas normalmente no guarda ninguna relación con el mismo, siendo una constante la presencia de mensajes políticos en los recintos, que poco o nada tienen que ver con el ambiente festivo que ha de ser predominante en el barrio o pueblo donde estas se celebren.

Mezuok hainbat modutan ikusgarri egoten dira, batzuk begi bistan, adibidez kalejiretan, paskinetan, pankartetan edo argazkietan, eta beste batzuk ez dira hain bistakoak, adibidez edalontzietan egoten direnak. Logikoa denez, mezu horiek jai-esparrua politizatu egiten dute eta egon beharko litzatekeen giroa kutsatu egiten da. Horrekin guztiarekin, pertsona batzuk integrazio-falta edo deserosotasuna sentitzen dute, eta ez lukete horrelakorik jasan beharko.

La presencia de estos mensajes, presentes en multitud de formas algunas fácilmente visibles tales como kalegiras, pasquines, pancartas, fotos y otras no tanto como en vasos conlleva una lógica politización del recinto ferial enviciando el ambiente que le debiera corresponder y logrando con ello una falta de integración o incomodidad en algunas personas que no debieran tener que soportar.

Udaleko Talde hau guztiz jakitun da Getxon hamaika ideologia politikoko jendea elkarrekin bizi dela, eta ideologia batzuk elkarrengandik oso urrun daude, udal honen osaerak islatzen duen bezala. Horregatik saiatzen da udal hau eremu politikotik ahalik eta urrunen dagoen jai-giro bat lortzen, ikuspuntu politikoak kontuan hartu gabe. Gure ustez, herri edo auzo bateko jaiak ondo pasatzeko dira, denbora batean denok ditugun arazoak eta zereginak ahazteko unea, baita ere gai politikoak. Gauza bakoitzak bere une eta lekua duela deritzogu, eta jaiak ez dira hain zuzen ere horiek jorratzeko ez une ezta lekua ere.

Este Grupo Municipal es plenamente consciente de que en Getxo cohabitan multitud de ideologías políticas distintas, algunas de ellas en las antípodas de otras, tal y como es fiel reflejo la misma composición de este Consistorio y por tanto trata de conseguir un ambiente festivo lo más libre posible de politización alguna, sean del signo político que sean. Creemos que las unas fiestas de un pueblo o barrio son momentos de diversión, de olvidar por unos momentos las preocupaciones y quehaceres que todos y todas tenemos y dejar de lado los temas políticos, creemos que cada asunto tiene su momento y lugar y que las fiestas no es el que les corresponde.

Gainera, gure iritziz jai-giro on batek aukera bikaina eskaintzen du sozializatzeko, lagunak egiteko, eta guztiok integratu ahal izateko. Horregatik desegokitzat jotzen dugu mezu hauek egotea, hauen presentziak giro ona sortu baino jai-giro atsegina egoteko oztopoak jartzen dituelako.

Opinamos además que un buen ambiente festivo brinda una oportunidad excelente para socializar, para confraternizar y para que todos y todas nos integremos. Es por ello por lo que no vemos conveniente la presencia de estos mensajes que supondrían, lejos de crear un buen ambiente, trabas para un cordial clima festivo.

Bestalde, ezin dugu merkatariengan pentsatzen utzi. Beraientzako

Por otra parte no podemos dejar de pensar en los comerciantes. A ellos sin

beharrezkoa da dudarik gabe jai-giro egokia egotea, eta ezin dugu ezta ere albo batera utzi Getxok helmuga turistikoko irudi bezala sustatzeko duen aukera.

duda les interesa un buen ambiente festivo y tampoco podemos obviar la oportunidad de potenciar la imagen de Getxo como destino turístico.

Laburbilduz, jaiak gozatzeko eta ondo pasatzeko dira, getxotarren eta gure udalerrian ondo pasatzera etortzen diren turisten arteko senidetzea lantzeko, edozein ideologia, sinesmen eta kultura dituztela ere. Hori guztia dela eta, udal-talde honek ondorengo erabaki proposamena aurkezten du

En definitiva, las fiestas son tiempo de goce, disfrute y hermanamiento entre getxotarras y turistas con diferentes ideologías, creencias y culturas que desean pasar un buen momento en nuestra localidad. Es por ello que este Grupo Municipal expone la siguiente

ERABAKI-PROPOSAMENA:

PROPUESTA DE ACUERDO:

1.- Udalak Getxoko jai-batzorde ezberdinei deialdia egitea, diren ideologiakoak direla ere, eskuin zein ezkerrekoak, mezu politikorik gabeko jai-esparruak lortzeko. Horren barne sartzen dira edozein motatako pankarta, argazki eta paskinak.

1.- Llamamiento del Ayuntamiento a las distintas comisiones de fiestas de Getxo con el fin de lograr unos recintos sin la presencia de mensajes políticos sean de la ideología que sean, tanto de derechas como de izquierdas. Esto incluye la presencia de pancartas, fotografías y pasquines de cualquier índole.

2.- Udaletxean jakiten bada aipatutako mezu horiek edozein formatan bide publikoan daudela, kendu egingo ditu.

2.- En el caso de que el Ayuntamiento constate la presencia de los citados mensajes en cualquier forma y en la vía pública se procederá a su retirada.

Santiago Sainzek adierazi du 2013ko urtarrilean PP alderdiak antzeko mozio bat aurkeztu zuela jaiak arautzeko eskatuz eta mozio honek ez dituela jaiak arautu nahi, baizik eta jai-batzordeekin harremanetan jarri mozioaren zentzua helarazi.

Santiago Sainz indica que en enero de 2013 el PP presentó una moción parecida que pedía regular las fiestas y la actual moción no pretende regular las fiestas sino, en todo caso, contactar con las comisiones de fiestas para trasladarles el sentido de la moción.

Enrique Pradak, GUKen izenean, erantzun du jaiek orokorrean askotariko giro, esparru, musika, etab. dakartzatela. Haientzat ez da erraza zer den politika desberdintzea eta, besteekiko zein antolamendu legalarekiko errespetua aintzat hartuta,

Enrique Prada, en nombre de GUK, replica que las fiestas en general conllevan una diversidad de ambientes, recintos, músicas, etc. No ven fácil distinguir qué es política y qué no es y estima que desde el respeto a los demás y al ordenamiento legal no se oponen a

ez dira kolektiboek egoki deritzoten eran manifestatzearen kontra jarriko; hori dela eta, mozioaren aurka bozkatuko dute.

que los colectivos se manifiesten en la manera que les parezca oportuna, por lo que votarán en contra de la moción.

Ibon Rodríguezek azaldu du mozioak iritzi publikoa zein adierazpen-askatasuna isilaraztea proposatzen duela, eta hori agintean daudenek beti nahi duten zerbait dela. Mozioaren terminologia kritikatu du. Galdetu du zertaz ari diren jaiak ez direla politizatu behar diotenean. Bere ustetan tolerantziak ezin du adierazpen-askatasuna galarazi. Beraren iritziz mozioak, era atsegin batean, adierazteko erak mugatzea du xede eta, turismoari dagokionez, irudi idiliko bat izan nahi du. Getxoko jaiak ez ditu udalak antolatzen, jai-batzordeek baizik; eta haien helburua ez da herritarrek eta kolektiboek dituzten adierazteko erak kontrolatzea. Pentsatzen du jaietako giroa ez dutela adierazteko moduek okertzen, gobernu-ordezkariaren jarduketek edo hau bezalako mozioek baizik. Berretsi du jaietan ez dutela Espainiako bandera nahiko, preso eta erbesteratuez gogoratuko direla, Guardia Zibila joateko eskatuko dutela, programa feministak eta berdintasunezkoak babestuko dituztela, etab. Era berean, jakinarazi du Ciudadanos alderdiak beste mezu bat proposatu nahi badu, hori egiteko askatasuna duela, baina inolaz ere ez dutela hori egingo adierazpen-askatasuna kenduz.

Ibon Rodríguez expone que la moción plantea silenciar la opinión pública y amordazar la libertad de expresión que es algo que siempre persiguen los que están en el poder. Critica la terminología de la moción. Se pregunta de qué hablan cuando indican que no se deben politizar las fiestas. Estima que la tolerancia no puede impedir la libertad de expresión. Cree que la moción, de una manera amable, plantea limitar las formas de expresión y busca una imagen idílica para el turismo. En Getxo las fiestas las organizan las comisiones de fiestas y no el ayuntamiento y no se dedican a fiscalizar las diferentes formas de expresión de los ciudadanos y colectivos. Opina que lo que enturbia el ambiente de las fiestas no son las formas de expresar que puedan darse sino las actuaciones del delegado del Gobierno o mociones como esta. Se reafirma en que las fiestas van a decir que no quieren la bandera española, que se van a acordar de los presos y exiliados, que van a pedir que se vaya la Guardia Civil, van a apoyar programas feministas, de igualdad, etc., y si Ciudadanos quiere plantear otro mensaje son libres para ello pero no eliminando la libertad de expresión.

Susana de Cosek aditzera eman du Ciudadanosek egindako mozioa harritzen duela eta uste duela ez dituela Getxoko jai-esparruak ezagutzen. Gogorarazi du PPk urte asko daramatzala gai horiek defendatzen, ez jaietan soilik baizik eta mota guzietako ekitaldietan. Uste du

Susana de Cos manifiesta que le sorprende la moción de Ciudadanos y cree que no conoce los recintos festivos de Getxo. Recuerda que el PP lleva muchos años defendiendo estas cuestiones no sólo en las fiestas sino en todo tipo de eventos. Opina que las fiestas deben de ser de todos y debe de

jaiak guztionak izan behar dutela eta pertsona guztiekiko errespetua bermatu beharra dagoela; udalak, berriz, egoera hori bermatu behar du; horrenbestez, mozio horren alde bozkatuko dute.

garantizarse el respeto a todas las personas y el ayuntamiento debe garantizar esa situación, por lo que votarán a favor de la moción.

Santiago Sainzek kultura-aniztasuna aitortu eta onartzen du, baina mozioa mezu politikoei buruzkoa da, hau da, ezker abertzaleari buruzkoa azken finean. Gertaera bat azaldu du: bere lagun bat Australiako militar-jantzia ipini zuen Algortako inauterietan eta denbora luzez egon behar izan zuen agiraka egiten zion jendeari azaltzen ez zela Espainiako militar baten jantzia; bere ustez, egoera hori ez da zentzuzkoa. Getxo gune turistiko bat izatea nahi du, eta edonor joan ahal izatea ezker abertzalearen mezu politikoak direla eta txarto sentitu barik.

Santiago Sainz reconoce y acepta la diversidad cultural pero la moción habla de los mensajes políticos, básicamente de la izquierda abertzale. Cita un episodio en el que un amigo suyo que iba disfrazado de militar australiano en carnavales en Algorta tuvo que estar largo tiempo explicando a la gente que le increpaba que no era un traje militar español y cree que esa no es una situación razonable. Busca que Getxo sea una zona turística a la que cualquiera pueda venir y no sentirse mal por los mensajes políticos de la izquierda abertzale.

Koldo Iturbek, gobernu-taldearen izenean, erantzun du ez daukala inolako zentzurik espainol izateari buruz eztabaidatzeak. Bere iritziz, gauzak diren moduan esan behar dira eta Getxoko jaiak gaur egun normalak dira mezu politikoei dagokienez, ez daukate zerikusirik duela hamar urte jazotzen zenarekin. Hori guztia arrazoi desberdinak direla eta gertatu da; esate baterako, ETAk bere jarduera utzi izana, presio soziala, eboluzio ideologikoa, administrazioaren jarduketa, etab. Gehienetan, jaien ondoren eta salbuespen gutxi batzuk izan ezik, ez dago arazorik. Jakinarazi du ere Getxoko Udalak horri buruzko neurriak hartu dituela eta iraingarriak izan daitezkeen pankarta edo kartelak kentzen direla gogorarazi du. Beraren ustez, oso zaila da jaietan politika zer den mugatzea, mota askotako politikak baitaude eta adierazpen asko

Koldo Iturbe replica, en nombre del equipo de gobierno, que no tiene sentido debatir acerca de si se es español o no. Cree que las cosas hay que decirlas como son y las fiestas de Getxo actualmente son normales desde el punto de vista de mensajes políticos, nada comparable con lo que acontecía hace diez años y todo ello se debe a diferentes factores como son el cese de la actividad de ETA, la presión social, la evolución ideológica, la actuación de la administración, etc. En la gran mayoría, después de las fiestas y salvo algunas escasas excepciones, no existen problemas. Indica también que el Ayuntamiento de Getxo ha tomado desde hace años medidas en este sentido y recuerda que se retiran pancartas o carteles que sean ofensivos. Opina que es muy difícil delimitar lo que es la política en fiestas ya que hay políticas de todo tipo y muchas

positiboak izaten baitira; gainera, adierazpen-askatasuna errespetatu beharra dago. Udalaren zein jai-batzordeen talde-lanaren garrantzia azpimarratu du, oraindik lana egin beharra dagoela aitortu badu ere.

manifestaciones son positivas y hay que respetar la libertad de expresión. Pone en valor el trabajo conjunto del ayuntamiento y las comisiones de fiestas aunque reconoce que puede quedar trabajo por realizar.

Ibon Rodríguezek erantzun du jai-motaren bat urratzailea bada, beti izan direla inauteriak. Errepikatu du gustatuko litzaiokeela jaietan jende guztiak ondo pasatzea, baita kartzelan dauden pertsonek ere. Jakinarazi du Getxoko jaietan berarekin batera oso jatorri geografiko desberdinetako jendea egon dela eta inoiz ez dutela inolako arazorik izan. Gogorarazi du Espainian debekatu dutela musika-talde desberdinek jotzea arrazoi ideologikoak direla medio. Amaitzeko, adierazi du bilkuratik joango direla, osoko bilkuraren hasieran jakitera eman duten bezala, mugimendu feministak deitutako mobilizaziora joateko.

Ibon Rodríguez replica que si algún tipo de fiesta ha sido transgresora siempre han sido los carnavales. Insiste en que le gustaría que las fiestas puedan disfrutarlas también gente que actualmente está en la cárcel. Manifiesta que con él han estado en fiestas de Getxo gente de muy diferentes procedencias geográficas y nunca han tenido ningún problema. Recuerda que en España se ha prohibido actuar a diferentes grupos musicales por causas ideológicas. Finaliza manifestando que van a abandonar el Pleno tal y como lo han indicado al comienzo de la sesión para acudir a la movilización convocada por el movimiento feminista.

Une horretan, EH Bilduko udalkideak diren Oier Iturralde Fernández, Maite Arraiza Aramendia eta Ibon Rodríguez Larrinaga udalbatza-aretotik alde egin dute.

En este momento los corporativos de EH Bildu, Oier Iturralde Fernández, Maite Arraiza Aramendia e Ibon Rodríguez Larrinaga, abandonan el salón de sesiones.

Santiago Sainzek ihardetsi du bera ez dela jaietan ibiltzen eta ez duela gustuko plantak egiten ibiltzea, lan gogorra egitea baizik. Koldo Iturberen esku-hartzea eskertu du, baita egindako lana ere; hala ere, uste du oraindik lana dagoela egiteke.

Santiago Sainz replica que él no es de fiestas ni de postureos sino de trabajo duro. Agradece la intervención de Koldo Iturbe y la labor que realiza pero cree que todavía queda trabajo por hacer.

Mozioa bozkatu ostean, baztertu egin da aldeko 6 boto (PP, Ciudadanos) eta aurkako 15 botorekin (EAJ, GUK eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 6 votos a favor, PP, Ciudadanos; 15 votos en contra, PNV, GUK, PSE-EE.

**180.- CIUDADANOS UDAL-**

**180.- MOCIÓN DEL GRUPO**

**TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: EMAKUMEZKOENTZAT SEGURTASUN ESKASEKO TOKIAK SEGURUAGOTZEA, ARGITASUNA ETA BEGIRANTZA AREAGOTUZ**

Santiago Sainzek mozioa irakurri du.

Paula Amievak hitza hartu du mozioaren alde bozkatuko dutela esateko, lortu nahi duten helburuaren alde eginez. Bere iritziz, mozioaren literaltasuna hobetu liteke; izan ere, emakumeei soilik egiten die erreferentzia, gauza asko orokorrak badira ere. Beraren ustez, mozioa Berdintasun Kontseiluari helarazi beharra dago, eztabaida dezaten eta bertan ordezkatutako talde feministen ekarpenak entzun ahal izateko.

Joseba Arregik, gobernu-taldearen izenean, erantzun du udalak urteak daramatzala mozioak proposatutakoaren inguruan lanean eta aipatutako puntuak (elkarte, tekniko eta abarrekin batera egin zirenak) 2009ko dokumentu batean jaso zirela jada. Aipatutako puntu asko hobetu egin dira dagoeneko, eta beste batzuk hobetzeko bidetik doaz. Mozioak planteatzen duena —kamerak instalatzea— Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak onetsi behar du eta, Getxoko ezaugarriak kontuan hartuz, nekez emango du onespena. Amaitzeko, azken Berdintasun Planaren edukia, hirigintzako diseinuari buruzkoa, azaldu du; gaiak eztabaidarik sortzen ez duelakoan, abstenitu egingo dira.

Santiago Sainzek aitortu du mozioak Arregi jaunak adierazitako txostena aipatzen duela eta proposatzen dituen

**MUNICIPAL CIUDADANOS S/REFORZAR LA SEGURIDAD DE LOS PUNTOS “INSEGUROS” PARA LA MUJER ASÍ COMO INCREMENTAR SU ILUMINACIÓN Y VIGILANCIA**

Santiago Sainz da lectura a la moción.

Paula Amieva interviene para indicar que van a votar a favor de la moción por la finalidad que pretenden. Cree que la literalidad de la moción es mejorable ya que se limita a referirse sólo a mujeres cuando muchas cosas son generales. Cree que la moción debe trasladarse al Consejo de Igualdad para su debate y poder oir las aportaciones de los grupos feministas allí representados.

Joseba Arregi replica, en nombre del equipo de gobierno, que lo que plantea la moción el ayuntamiento lleva años trabajando y los puntos que se mencionan están recogidos ya en un documento del año 2009, que se elaboraron con la participación de asociaciones, técnicos, etc. Muchos puntos que se citan han sido ya mejorados y otros están en curso de mejora. Lo que plantea la moción, que es la instalación de cámaras, requiere la aprobación del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco que difícilmente dará su aprobación teniendo en cuenta las caracteristicas de Getxo. Finaliza indicando el contenido del último Plan de Igualdad respecto al diseño urbanístico, considerando que la moción no aporta mayor cuestión se abstendrán frente a la misma.

Santiago Sainz reconoce que la moción cita el informe indicado por el sr. Arregi y que los puntos que plantean

puntuak txostenean daudela, baina puntu horiek mantentzeko egungo egoera asko hobetu daitekeela; esandakoa frogatze aldera, argazkiak erakutsi ditu. Mozioak udalerria hobetu nahi du, baita gizon-emakumeen segurtasuna ere.

están en el informe pero la situación actual de mantenimiento de dichos puntos es muy mejorable, mostrando fotos que sucriben lo indicado. La moción busca la mejora del municipio y la mejora de la seguridad de las mujeres y hombres.

Joseba Arregik ihardetsi du aipatutako leku batzuetan aukerako beste ibilbide batzuk daudela eta, horrenbestez, ezin direla puntu beltz gisa kalifikatu; gauza bera esan liteke ikuspena daukaten lurpeko pasabideei buruz. Gaia seriotasunez jorratu beharra dagoela uste du, eta argazkiek ez dutela higiezin horien errealitatea irudikatzen.

Joseba Arregi replica que en algunos sitios de los citados hay itinerarios alternativos y por tanto no pueden calificarse como puntos negros y lo mismo en aquellos pasos subterráneos en los que existe visibilidad. Cree que hay que tratar el tema con seriedad y que las fotos no representan la realidad de esos inmuebles.

Santiago Sainzek erantzun du ez duela ulertzen zelan eztabaida daitekeen egun horretan bertan hartutako argazki batek irudikatzen duena. Amaitu du esanez eraikuntza-jarrerarekin dokumentu eta argazki horiek udal-zerbitzu teknikoei igorriko dizkiela.

Santiago Sainz replica que no entiende como se puede discutir lo que refleja una foto tomada en el mismo día de hoy. Finaliza indicando que con espíritu constructivo hará llegar esos documentos y fotografías a los servicios técnicos municipales.

Mozioa bozkatu da, eta honako emaitza hau lortu da: aldeko 5 boto (GUK eta Ciudadanos) eta 16 abstentzio (EAJ, PP eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 5 votos a favor, GUK, Ciudadanos; 16 abstenciones, PNV, PP, PSE-EE.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría es aprobada la siguiente moción:

Zorionez, Getxon asko hobetu dugu "seguruak ez diren" eta emakumearentzako izatez arriskutsuak diren puntuak detektatu, salatu eta hobetzeko lanean. Hala ere, ezin gara lorpen berrienekin poztu, aurrera egiten jarraitu behar da. Oraindik ere "seguruak ez diren" puntu edo eremuak daude, eta horiek babestu eta hobetu egin behar dira.

En Getxo afortunadamente hemos avanzado mucho en cuanto a la detección, denuncia y corrección de puntos "inseguros" y zonas potencialmente peligrosas para la mujer. Aun así no podemos complacernos con nuestros logros más recientes, hay que seguir avanzando. Todavía quedan puntos o zonas "inseguras" que faltan aún por cubrir y mejorar.

Horregatik udal-talde honek uste du

Es por ello que este Grupo Municipal

beharrezkoa dela segurtasun-gailu finkoak jartzea, segurtasun-kamerak bezalakoak, Getxon dabilen emakume ororen segurtasuna zaintzeko. Horrez gain, zona hauetako batzuetan argiztapena indartu beharko litzateke, landaredia kendu edo erasotzaile bat ezkutatu daitekeen balizko txokoak islatzen dituzten ispiluak jarri.

estima necesario la instalación de dispositivos de seguridad fijas como cámaras de seguridad con el fin de velar por la seguridad de toda mujer que transite por la geografía de Getxo, así como el refuerzo de la iluminación de alguna de estas zonas, eliminar vegetación o instalar espejos que reflejen posibles rincones donde un agresor pueda esconderse u ocultarse.

Ondoren, zerrenda bat aurkeztuko dugu segurtasunik ez duten puntuak zehaztuz, non jada salatu den berehalako esku-hartzea egiteko beharra dagoen. Horrez gain, gure proposamenak azalduko ditugu honako LEKUETAN segurtasuna handitu eta indartzeko:

A continuación procederemos a hacer un listado de estos Puntos Inseguros en los que ya se ha denunciado la necesidad de una intervención inmediata y nuestras propuestas en pos de incrementar y reforzar su seguridad en los siguientes LUGARES:

- Aiboako metro geltokia: egia da zona honetan 4 bideo-kamera daudela (3 bide publikoan eta bat igogailuaren barnean), baina gure iritziz badago babestu gabe dagoen leku bat, bide publikora jaisteko geltokiko eskailerak hain zuzen ere. Kasu honetan, bertan dagoen zuhaitzaren zenbait adar moztu beharko lirateke eta, kale-argiaren hari elektrikoak aprobetxatuz, gomendagarria litzateke beste bideo-kamera bat jartzea zona horretan. Bideo-kameraz gain, biraketa itxia egin baino lehenago dagoen atseden-tokian ispilu bat jartzea eskatzen dugu, oinez jaisten zoazenean behean norbait ezkutatuta dagoen edo ez ikusteko.

- Estación del Metro de Aiboa: si bien esta zona se encuentra cubierta por 4 videocámaras (3 en la vía pública y una dentro del ascensor) consideramos que hay una zona desprotegida situada en las escaleras de bajada de la estación a la vía pública, en este caso se debería recortar varias ramas del árbol que allí se encuentra y aprovechando el tendido eléctrico de la farola ya situada instalar una videocámara más en esa zona, además de un espejo en el descansillo antes del giro cerrado, que refleje según bajas si existe alguien oculto abajo.

- Areneondoko lupeko pasabidea: puntu honetarako zehazki eskatzen duguna da argien erregistro-kutxa babestea. Orain dagoena kaltetuta dago eta gainera begi bistan, eta tunelean jarrita dauden 3 fokuak 6ra gehitzea (3 alde bakoitzean) ere eskatzen dugu. Horrez gain, Areneondo kalean kamera osagarri bat jartzea beharrezkotzat

- Paso subterráneo de Areneondo: En este punto solicitamos concretamente proteger la caja de registro de luces, la cual se encuentra deteriorada y a la vista, además de incrementar los focos de los 3 que actualmente se encuentran instalados en el túnel a 6 (3 en cada lado) además de la instalación de una cámara de

jotzen dugu, lurpeko pasabidea eta inguruak enfokatuko dituena. Gainera, bazter arriskutsuenak islatzen dituzten ispiluak jartzea ere nahi dugu, kasu honetan pasabideko irteera erakusten dutenak.

seguridad adicional en la calle Areneondo enfocando al paso subterráneo y sus inmediaciones. Pedimos también la instalación de espejos que reflejen los rincones más peligrosos, en este caso a la salida del paso.

- Plentzia Hiriaren kaleko lurpeko pasabidea, Artaza ondoan: zona iluna da, argiztapen eskasa du eta zaila da emakume bat bertan ikusi ahal izatea, lurpeko pasabiderako sarbidea bihurgunean dagoelako. Horregatik eskatzen diogu Osoko Bilkurari inguruan dagoen landarediaren zati bat kendu dezala, lurpeko pasabideari enfokatuta dagoen bideo-kamera bat jarri eta ispiluak ere ipini sarbiderako bihurgunean. Horrez gain, Getxori dagokion pasabidearen sekzioan argiztapena gehitzea nahi dugu eta Leioako Udalari eskatzea helburu hauetarako beraiei dagokien lurpeko pasabidearen sekzioan ere segurtasuna handitu dezatela.

- Subterráneo zona Villa de Plentzia junto a Artaza: se trata de una zona oscura, con una mala iluminación y con dificultad para que una mujer pueda ser vista al encontrarse el acceso al subterráneo en curva, es por ello que solicitamos al Pleno eliminar parte de la vegetación circundante, instalar una videocámara enfocando al subterráneo y espejos en la curva de acceso así como incrementar la iluminación del paso en la sección perteneciente a Getxo e instar al Ayuntamiento de Leioa a que incremente la seguridad de su sección del subterráneo perteneciente a su municipio para estos fines.

- Andra Mari Eliza eta inguruak: leku honetan dauden udaleko komunak berrikusteko eskatzen dugu; une honetan abandonatuta daude eta ate ahulak dituzte. Ate horiek oso erraz apurtu daitezke Andra Mari elizan eta kiroldegiaren artean dagoen bazterrean. Kiroldegian bideo-kamera bat jartzeko ere eskatzen dugu, txoko hori eta inguruak enfokatuko dituena, eta txokoaren aurretik ispilu bat jarri behar dela uste dugu, ustezko erasotzaile bat ezkutatuta dagoen edo ez ikusi ahal izateko.

- Iglesia y alrededores de Andra Mari: Solicitamos aquí la revisión de los baños municipales actualmente en estado de abandono y con unas puertas muy endebles y fácilmente rompibles en el recoveco sito entre la parroquia de Andra Mari y el polideportivo, además de la instalación de una videocámara en el propio polideportivo enfocando este recoveco y sus alrededores y un espejo antes de este recoveco que refleje si se oculta algún posible agresor.

- Nuestra Señora de Europa ikastetxeko atzeko aldea: konfiantza edo segurtasunik transmititzen ez duen udalerriko eremu bat da, zehazki Goñi Estarta 3 kalearen atzeko aldea.

- Trasera Colegio Nuestra Señora de Europa: Se trata de una zona del municipio que no inspira confianza o seguridad alguna, concretamente en la parte trasera de la calle Goñi Estrata 3.

Ciudadanos C's-etik Osoko Bilkurari eskatzen diogu izkinetan ispiluak jartzeko, bide honetan norbait ezkutatuta dagoen ikusi ahal izateko. Bide hori landarediaz estalita dagoen mutur batean dago, eta landaredia hori moztuta, argiztapena nola gehitu kontrolatu ahal izango zen.

Desde Ciudadanos C's solicitamos al Pleno espejos en las esquinas con la finalidad de observar si se esconde alguien en este camino, el cual se encuentra en un extremo totalmente cubierto de vegetación que habría que recortar y controlar así como incrementar la iluminación

- Makaleta etorbideak Iparbide kalearekin bat egiten duen lekuko lurpeko pasabidea: aurretik aipatutako lurpeko pasabidean bezala, emakumeentzat ikuspegia zaila den leku baten aurrean aurkitzen gara, sarbidea bihurgune batean dagoelako. Gainera landaredia dago, balizko erasotzaile baten ezkutalekua izan daitekeena. Pasabidearen argiztapena eskasa da, eta horregatik eskatzen dugu argiztapena gehitzea eta sarbideko bihurgunean ispiluak jartzea. Baita ere bideo-kamera bat ezartzea pasabidea enfokatuko duena.

- Paso subterráneo de la Avenida de los Chopos con la Calle Iparbide: Al igual que en el subterráneo anterior nos encontramos con una zona de difícil visibilidad para una mujer puesto que su acceso también se encuentra en curva, hay vegetación que posibilita servir de escondite a un posible agresor y la iluminación del propio paso es escasa, es por ello que solicitamos incrementarla así como insultar espejos en la curva que sirve de acceso, que se instale una videocámara enfocando al subterráneo y espejos en la curva de acceso.

- Salsidu Bizkerrerekin batzen den tokia: eremu honetan moztu eta kontrolatu beharra dagoen landaredia asko dago. Funtsezkoa da landaredia erasotzaile bat ezkutatzeko bezainbesteko hostotsua ez izatea. Eremu honetan aurkitzen den autobus-markesinaren inguruko landaredia zehazki eta beste landaredia batzuk ere mozteko eskatzen dugu, eta bertan dagoen kale-argia aprobetxatuz bideo-kamera bat jartzea, markesina biak enfokatuko dituena.

- Salsidu con Bizkerre: Se trata de una zona con una abundante vegetación la cual ha de ser recortada y controlada para no alcanzar una frondosidad suficiente susceptible de ocultar a un agresor. En concreto, pero no por ello únicamente la vegetación circundante a la marquesina de autobús sita en esta zona, solicitamos también la instalación de una videocámara aprovechando una de las farolas existentes ya en la citada zona enfocando directamente a las dos marquesinas de la zona.

Benetan uste dugu emakume bat bere etxera edo doan lekura doala libre sentitu behar dela eta ez ausarta, eta ez gara geldituko gai hau helburu bihurtzetik errealitate bihurtzeraino. Prebentzio guztia ez da nahikoa ekintza higuingarri hauen aurrean, eta ez gara

Tenemos la firme convicción de que una mujer a la hora de llegar a su domicilio o donde quiera que se dirija debe sentirse libre y no valiente y no pararemos nunca hasta que esto deje de ser un objetivo a conseguir y se convierta en realidad y que toda

zerbait gertatzeko zain egon behar erakunde bezala dagozkigun neurriak hartzeko.

prevención es poca ante estas repulsivas acciones, no tenemos que esperar a que pase para tomar todas las medidas que como institución nos corresponden.

Hori guztia dela eta, udal-talde honek ondorengo erabaki proposamena aurkezten du:

Es por ello que este Grupo Municipal solicita la siguiente

ERABAKI PROPOSAMENA:

PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA.- Zaintzako kamera iraunkorrak bezala ezagutzen diren gailuak jartzea aipatutako puntuetan edo kontsentsu bidez adostutako beharrezkoak diren eremuetan. Hori guztia edonolako erasoak saihesteko, beti ere indarrean dagoen legeria eta gure Konstituzioan jasotako oinarrizko eskubideak eta askatasuna errespetatuz.

PRIMERA.- La instalación de los dispositivos de vigilancia conocidos como cámaras de vigilancia fijas en los citados puntos o aquellos que, de forma consensuada se estime oportuno o necesario con el fin de prevenir cualquier forma de agresión, respetando siempre el marco legal vigente y los derechos y libertades fundamentales recogidos en nuestra Carta Magna.

BIGARRENA.- Puntu horietan argiztapena indartzea, bereziki aurretik aipatutako Areneondoko lurpeko pasabidean. Horrez gain, balizko erasotzaile bat ezkutatzen lagundu dezaketen landaredia edo antzeko elementuak kentzea, eta getxotarrak orokorrean lasaiago eta seguruago sentiaraziko dituen ispiluak jartzea.

SEGUNDA.- Reforzar la iluminación de estos puntos, especialmente del ya citado punto del Paso subterráneo de Areneondo, así como la eliminación de posible vegetación o demás elementos de naturaleza similar que puedan contribuir a ocultar o esconder a un posible agresor, así como la instalación de espejos para una mayor seguridad y tranquilidad de los y las getxotarras en general.

## GALDE-ESKEAK

## RUEGOS Y PREGUNTAS

### 181.- 2017KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN AURREPROIEKTUAREN ESKEA.

### 181.- RUEGO SOLICITANDO EL ANTEPROYECTO DEL PRESUPUESTO PARA EL EJERCICIO 2017.

Santiago Sainek ondorengo eskea irakurri du:

Santiago Sainz da lectura al siguiente ruego:

Alkateari arren eskatu behar diot, irailekoan udal-taldeetako bakoitzari 2017ko ekitaldiko aurrekontuaren aurreproiektua helarazi diezagun, xedearekin behar adina denbora dugula azter ahal dezagun, arauzko epeak beterik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 foru-arauak xedatzen duen bezala.

Ruego al Alcalde que en el mes de septiembre nos de traslado a los diferentes grupos municipales del anteproyecto de presupuesto para el ejercicio 2017 para así poder trabajarlos con tiempo y cumplir con los plazos estipulados en la NF 10/2003, de 2 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Alkateak erantzun du kontuan hartuko duela eta dokumentua sail desberdinetan lantzen ari dela; halaber, jakitera eman du helburua ahalik eta arinen aurkeztea dela akordioetara heldu ahal izateko.

El Alcalde replica que toma nota del mismo e indica que el documento se está trabajando en las diferentes áreas y el objetivo es presentarlo cuanto antes para posibilitar llegar a acuerdos.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du arratsaldeko zazpiak eta hogeita bost minutu direnean. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las 19 horas y 25 minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.